

B

BARREN

TOKIKOM



Artista nekaezina

Julen Zabaleta "Yulen"



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Lorzaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabillioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Gure betebiharra ere badalako!

Herritar gisa badaude arduratzen nauen kontu batzuk. Hórretako bat HAPOa da, Hirixa Antolatzeke Plan Orokorra. Berba potoluak dira dudarik gabe, baiña potoluaua da planak berak dakarrena, eta prozesu honen inguruan autokritika apur bat egittia ez legoke gaizki. 2009ko abuztuan zabaldu zan ekarpenak eta alternatibak aurkezteko epia, eta 2009ko azaruaren 15ian itxi. Oker ez banago, 30 iradokizun aurkeztu ziran. 30 besterik ez! Gaiñontzeko elgoibartarrok konforme gaude planak planteatzen dittuan puntu danekin? Bihar bada ez diogu gai honi eskatzen dauan garrantzixa eman, edo bihar bada, ez dogu Udalaren sistemetan siñisten.

Argi daukadana zera da: nik ez dotela HAPOaren gaiñeko erakusketan ikusittako Elgoibarren bizi nahi. Gustoko bizitoki bat nahi baldin badogu guretzat eta gure ondorenguentzat, gure herrixa ere sartu biharko genduke gure etorkizuneko planetan.

Ziur nago proiektu eta ideia interesgarri asko dakaguzela barruan bueltaka, eta herritarrok eskubidiak dakaguzen bezela, betebiharrak ere badittugu, eta gure obligazuetako bat herrixa hobetzeko lan egittia da.

Oindiok sasoiz gabiz. HAPOaren erakusketa zabalik egongo da hillaren 28ra arte, eta martxuaren 15era arte aurkeztu ahal izango doguz alegaziuak Hirigintza Saillian.

Okil Beltzak-en izenian zera proposatu nahi dizuet: bidali daiguzen alegaziuak eta proposamenak helbide honetara: <http://okilbeltzak.blogspot.com>. Billera bat egitteko deialdixa egingo dogu, eta norberaren helburu eta proiektuak taldian aurkeztu ahal dittugun aztertuko dogu. Izan ere, herritar talde baten izenian zerbait gehixago lortu geinke. Ikusiko dogu Udalak zer jarrera hartzen dauan. Ez zaitzatela erakusketako irudi eta bideuek konkistatu; izan gaittezen zuhurrak.



Haritz Arrieta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetari: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Argi daukadana zera da:

nik ez dotela HAPOaren gaiñeko erakusketan ikusittako Elgoibarren bizi nahi”

**EGIN ZAITEZ GURE LAGUN
FACEBOOKen!**

**386 lagun
ditugu
dagoeneko!**



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



JULEN ZABALETA ARTISTA

**“Jubilau eta gero ere,
zortzi urtian jardun naban tallarrerako dibujatzen”**



90 urte beteko dattu astelehenian, baiña sasoiko eta argi dago artian Julen Zabaleta (Elgoibar, 1921). Ume-umetatik izan dau dibujorako zaletasun haundia, eta tintaz eta lumaz egindako 4.000 marrazki baiña gehixago dattu bere etxeko “bunkerrian” artxibautan. Sasoi bateko eraikiñak eta galtzeko arriskuan dauazen ofiziuak marraztia gustatzen jako, eta dozenaka liburutan topau geinkez bere biharrak. Ez dago gelditzeko, baiña. “Gorputza berez da alperra”, diño.

Elgoibartarra jaixotzez, baiña urte askuan Eibarren bizi dana zara zu. Ze lotura dakazu gaur egunian zeure jaixoterrixakin?


Demasa. 30 urte bete arte Elgoibarren bizi izan nitzan ni, eta gero etorri nitzan hona [Eibar], ezkondu nitzanian. Badakizu *“el hombre nace donde Dios quiere y vive donde la mujer quiere”*. Hala eta guztiz ere, domekero juaten naiz Elgoibarrera. 19:30ian Jai Alaietan egoten naiz ni beti. Han izaten dittut hiru lagun zain. Elgoibarren bixar jaixotzekuak diranek ere ezagutzen naue ni. Eibarren ere amastade asko eta onak dittut, baiña elgoibartarra naiz. Nere lagun batek halaxe esan zian behin, Eibarren hiru klasetako jendia dauala: eibartar-eibartarrak, jende zabala, alegriak eta salauak. Hórrekin infernura ere jua leike. Badauz *handikhonakuak* ere, neu bezala Elgoibartik edo kanpotik hona etorritakuak. Eta bestiak elgoibartarra zarala jakin eta gitxio egitten zaittuenak: txotxoluak. Eibarren “direkziotarrak” esaten digue elgoibartarrei. Lehen *tocinos* ere esaten ziguen, urdaixan trukian San Andres geuri kendutakua zala pentsatzen zeuben eta, baiña orain enteratu diranian Elgoibarrek sekula ez dabela San Andresik izan, ba “direkziotarrak” esaten digue gehixago. Guk “estaziua” esaten dogu, eta Eibarren, berriz, “estaziñua”.

Hillaren 14an 90 urte beteko dittuzu, baiña geldittu ere egin barik zabiz. Ez dozu ematen 90 urte egin behar dittuzunik. Dibujorako afiziuak mantentzen zaittu horren gazte?

Akabo ba. Emango banittu ez nittuan 89 izango! Nik uste dot baietz, horixe dala. Askotan egoten naiz pentsatzen, igarri orduko joan jatalako denboria. Pena bat daukat: bizkorregi jaixo nitzala. Gure ume sasoiaren gurasuek ez zuten eskoliarri inportantziarik ematen. 6 urterekin hasi nitzan ni eskolan. Nere ama basarikua zan, Musillokua, eta amama gaixotu zanian kaletik baserrira jua bihar izan giñan gu, amama gobernatzera. Amama hil arte egon giñan han, urte eta erdixan, eta han eskolara bidaltzen ninduen auzokuekin, San Lorentzoko ganbara zaharreko eskolara. Unibertsidadia esaten zuten, eta hantxe ikasi neban nik a,e,i,o,u. A ikasi orduko kartoia apurtu zan, eta akabo! Hantxe estrenau neban nik aittak ekarrirtako lapitza. Zer ete zan orduan lapitza!

Eta handik Plaza Txikiko eskola publikuetara?

Ez. Hangua amaittu zanian, gure tianera bidali ninduen, eskola publikuan ez zielako lagatzen sartzen. Gure tia San Migelen egondakua zan maistra, eta partikular ematen zittuan eskolak. Eskuan palua zebala ibiltzen zan, beti errietan. Okerra ere ez nitzan, baiña haraxe bidaltzen ginttuen zuzentzera. Pare bat urte egin nittuan han, eta handik Don Felixengana gero, Plaza Txikiko eskola publikuetara. Gero publiketatik atera eta partikular berrira. Sartu nitzanian baiña okerrago nagan ni orduan. 12 urterekin zaitketak egitten ez nakixala. Eta gero gerriak irten zaban, eta akabo dana! Eskola handirik gabiak gara gu. Ezagutzen dittudaz, hala eta guztiz, esko-



lan gure antzera ibilli diranak, eta gero eminentziak izan diranak: Pako *Sevitas* bera [Pako Iriondo], esate baterako.

Noizkua dozu dibujorako afizua?

Ume-umetako denboretakua. Aittak lapitza erosi zidan, eta haretxe-kin hasi nitzan. Harek egitten zittuan arraixak! Ez giñan, ez, oraingo umien moduan hazi. Bastoian imitazua zan lapitz haura, eta haretxe-kin hasi nitzan papelian automobilla egitten. Orduan ez ziran automobil asko Elgoibarren, baiña nik beti autua egitten naban. Gero gauza bat hartu eta hauraxe kopixatzen hasi nitzan. Orduan baneukan nik eskolako liburu bat, entziklopedixa bat, eta han agertzen zan Don Juan Prim Reusko jenerala zaldi gaiñian. Eta gure etxian beste danak mahaipian jolasian zebizela ni hantxe egoten nitzan mahaixan jarri eta kopixatzen. Dibujo hori garajian izan zaban gure aittak, etxera etortzen ziran daneri erakusteko. 9 urte nittuan orduan, baiña gaur ez dakit hobeto egingo naban.

Eta behin edade batekin delineante hasi ziñan.

Delineante egin nitzan dibujuan afizua neukalako. Nere bizi guztian lapitza eta papela eskuan ibilli naiz, beti ondo eta asko egittera. Asko egitten egin naiz ni. Maisu ere egon naiz, baiña nik neuk sekula ez dot maisurik izan.

Noiz, nun eta zelan hasi ziñan delineante? Enkarguzko lanik egin izan dozu?

Ez, ez dot hartu halako obligaziorik. Elgoibarko Udalak eskatuta sanbartolomietako kartelak egin izan dittut, eta liburu batzuetarako ilustraziuak ere bai, baiña gaiñontzian, biharreko kontuak. Tornero moduan hasi nitzan tallarian, Jarben, eta han dibujo apur bat egin nabanian, ugazabak ofizinara bidali nindduan. *“Tú tienes dibujo y a mi me hace falta eso”*, esan zidan. Bera hasten zan tableruan dibujatzen, baiña ezin, eta halaxe, beste tallar batera bidali nindduan, egunian ordubete bat dibujua egittera. Orduan ez zagan delineanterik eta dibujanterik hemen. Eskolarik ere ez. Eibarren Eskola Armerixia zagan, baiña Elgoibarren ezer ez. Sei bat egunian jardun naban, eta astebetere etorri jatan barrero Jose Arana ugazaba tallarrera itxuraz jantzitta juateko esa-

nez, delineante hasi behar nitzala eta. Urte mordua egin nittuan han. Tornuan eta kalkuluan eskola pixkat baneukan, eta delineatzen ikasi naban. Handik Goitira jua nitzan, eta han kataloguetarako dibujuak egitten hasi nitzan, dibujo artistikua esaten jakona egitten. Baiña halako batian biharrik gabe gelditu giñan Goitin, eta Danobatekuak enteratu ziranian, hara eraman nindduen. Urte mordua egin dittut nik Danobaten. Jubilau eta gero ere, zortzi urtian jardun naban etxian tallarretarako dibujatzen. Instrukzio liburuak egitten nittuan Kanadara eta hor zihar bidaltzeko. Makiñiaren tripa guztiak egitten nittuan, perspektiban, gero bestiek zelan lotu behar zan jakin zeixen.

Eskola haundirik ez dakazula diñozu. Berezkua dozu orduan?

Eskolarik ez dogu izan, baiña konstantzia haundixa bai. Eginez ikasten da. Hillabetian arraixarik egin gabe banago, igarri egitten dot. Ez dakat erraztasun hori; torpetu egitten naiz. Sekretorik ez dakat, baiña egitten dotena badakit seguru egitten dotela. Nik zenbat lapitz gastau ete dittut neure bizimoduan!!! Eta tintia? Tinta txiniakin ibilli naiz gaizki. Hemen ez da asko erabiltzen tinta txinia. Orain ez debe ekartzen, orain dana pianua jotzen egitten debe, dibujuak eta dana. Bilbora eta Iruñeara juanda ibilli nitzan billa, baiña ezer ez!. Lagun bati esan nion, eta haren semiak sekulako potetzarra ekarri zidan Txinatik, Shangaittik. Biharbada hilko naiz haura amaitsu orduko.

Zelan lan egitten dozu?

Lehenengo argazkixa ataritzen dot. Kamaria beti aldian erabiltzen dot nik; eta ez bat, bi baizik! Gero hórrek erretratuok papelera ateratzen dittut, eta lapitzakin dibujua egitten dot. Eibarren badago bioliñak egitten dittuan gazte bat [Ander] Arroitauregi izenekua, eta harexi atera diodaz azkenak. Trenian eta autobusian ibiltzen naiz batetik bestera, eta baita Carmelo Urdangarinek ere autuan. Iraillian, berriz, Iruñeara joaten naiz semiaren etxera, eta handik batera eta bestera ibiltzen naiz, gustuko parajien billa. 690 lamina eginda dittut Naparrukuak, eta hor dittut danak artxibauta. Orain hurrengo, hogeita bat lamina egin nittuan hamabost egunian, baiña tintarik gabe gelditu nitzanez, lapitzakin egin nittuan danak.

**“Hillabetian arraixarik egin gabe banago igarri egitten dot.
Ez dakat erraztasun hori; torpetu egitten naiz”**

Zure dibujuei erreparatuta pentsau geinke lehengo eraikiñak dittuzula gustukuen. Zergaittik?

Polittaguak diralako. Gaiñera, antziña baztarrak zelakuak ziran jakittekore ere balixo dau, historia jasotzeko. Elgoibarko frontoia egitten nabil orain. Orduan pelotarixak irtetzen ziran frontoira Elgoibarren, eta orain fooballian egitten debe umiek han. Orain, barkillerorik ere ez da izaten. Gastatzera duazen ofiziuak ere ateratzen dittut *Oficios Tradicionales* liburuan, bixar edo etzi existiduko ez diran ofiziuak. Carmelorekin [Ur-dangarin] ibiltzen naiz ni artisau ferixarik ferixara. Gehixen gehixen, baiña, eliza zaharrak eta hórrek gustatzen jataz.

Zenbat dibujo dittuzu eginda guztira?

4.000 bat inguru. Bizkaiko 471 ermittak eginda dittut, esate baterako. Gipuzkoako parrokixak egitten hasi nitzan lehenengo, gero udaletxiak, ermittak hurrengo eta halaxe, segi. Euskal Herriko Meatzaritza museorako dibujo bat egin naban behin, eta ohorezko sozio egin ninddue-nian, Diputazioko andra bat etorri zan zeremonixara. Carmelok Gipuzkoako ermitta danak eginda nittuala esan zion hari, eta Bizkaiko Diputaziuak ataratako ermitten liburu bat ematekotan geldittu zan andria. Hiru egun barru txofer bat etorri jatan etxera, hiru liburu ikusgarrirekin. Eta liburuko danak egin nittuan: 471. Baiña azkenian 472 izango dira, ze Ermuan San Antonio egitten dihardue orain. San Antonio tallarra zan lekuan ermitta bat ei zan lehen, eta orain tallarra pikutara juan danian, lehenguan pareko bat egitten hasi dira.

Iñoz ez dozu pentsatu maisu hastia?

Ez. Elgoibarko Eskola Profesionalian egon nitzan maisu, ezkondu aurretuan, 1951n. Tallarretik irtenda etortzen ziran txabalituak, iluntzian, eta klaro, etxera orduko berandutu egitten jatan neri, orduan ez zan gaur beste autobusik izaten eta. Ezkondu barri nitzan, gaiñera, eta laga egin behar izan naban, andriak indar gehixago zeukan eta. Gu hasi ere probisional hasi giñan orduan, titulorik gabe. Bost urte pasatu ziran eskolia ofizial egitterako [1955ian], baiña ni ordurako lagata nagan. Ofizial egin zanian barritu zeben eskolia eta ekarri zittuen maisuak kanpotik, eta orain Elgoibarko Eskola Profesionala kategorikua da.

Zelan antolatzen dozu eguna? Zenbat denbora eskaintzen diozu egunian dibujuari?

8:00ak aldera jaikitzen naiz, eta garbittasunak egin ostian, jantzi, eta periodikotara eta ogittara irteten naiz. Armuzua egin, eta butakan jarritta periodikua irakurtzen dot, kruzigrametara arte. Gero dibujo apur bat egitten dot, eta 13:45ak aldera semiarengana juaten naiz bazkaltzera, 15:00etarako partia ikustera etortzeko atzera. Partia amaittu orduko pertsianak bajatzen jataz, baiña, eta lo egitten dot, esnatzen naizen arte. 16:30ak inguruan sartzen naiz neure bunkerrian, dibujatzera.

‘Eibar, tintaz eta lumaz’ dozu azkeneko zeure lana. Zein izan zan ilustratu zenduan lehenengo liburua, eta geroztik zenbat egin dittuzu?

Juan San Martinen *Eztenkadak* liburua izan zan lehenengua, eta gero *Origenes de los vascos* bildumia. Danera ezin neike esan zenbat egin dittuten, kontua ere galduta daukat eta. Azkena, berriz, zeuk esandako hori. Nik dibujauk eraman diuedaz, eta Ego Ibarrek egin dau gaiñerako dana. Liburu horretako lanekin esposiziua ere egin debe Eibarren. Ehun bat lamina behar zittuela esan zien, eta azkeneko bostak artxi-buan topatutako erretratu zaharretatik egin dittut.

Juan San Martin idazlia aittatu dozu. Harreman estua izan zendun zuk harekin, ezta?



Juan San Martín kuñatua neban, eta haren bittartez ezagutu naban nere andria be. Espeleologian ibillitakua da bera, eta ni harekin ibiltzen nitzan Aitzbeltzen, Erentza, eta baita Agarreko leizian ere, planuak egitten. Juanito ni baiño urtebete gaztiagua zan, eta amistade demasa egin genduan, mendixan ibilli zaliak giñan bixok eta. Soldadutzatik etorri nitzanian, haren etxera juaten hasi nitzan, eta hantxe ezagutu naban Hortentsia, gero nere andria izango zana. Ezkondu ostian ere makiña bat ibilli egin nittuan nik Juanitorekin. Akordatzen naiz nobixia eibartarra nebala esanda, San Juanetan tallarran permisua eskatu eta Sierra Salvadara juan giñanekua ere.

Esan geinke elgoibartarrei orain momentuan zertan dabillen Julen?

Elgoibartarrek badakixie zertan nabillen ni. Orain momentuan ez daukat ezer buruan. Materixala pillatu eta pillatu nabil, egin eta egin. Hori-xe gustatzen jata neri.

Jende asko egoten da jubilatzeke zain, trankil-trankil bizi ahal izateko. Zuk, berriz, segi eta segi. Zer ematen dizu zuri dibujuak?

Nik, bai. Nik, ahal dan artian, segi. Satisfazio haundixa ematen ditt neri dibujatziak; nik hori gabe ezin dot bizi. Pentsaizu, ixa 90 urte dittut eta beittuizu zelan nabillen. Burua zenbat eta gehixago erabili hobe da, gazte.

Makiña bat ibilli egindakua zarala diñozu behin eta berrero. Pausua behintzat bizkorra dakazu oindiok.

Holaxe bihar da. Txarrak indar gehixago izaten dau onak baiño, eta gorputza berez da alperra. Neri andriakin pasatzen jatan hori. Mezia entzun, eta etortzen giñan etxera Untzagatik bueltia emanda, eta ni agujetekin beti. Soseguz ibiltzen gehixago kantsatzen naiz ni. “Norako prisía dakazu zuk?” esan zidan aurreko batian lagun batek. “Prisarik ez nik; ez agarrotatzeko nabil ni bizkor”.

Zure lan gehixenak zuri-baltzian dira. Koloria ez jatu gustatzen, ala?

Gehixenak bai. Gustau gustatzen jata, baiña daltonikua naiz, eta ezin. Hor pasilluan ikusi dozun koadro hori [Eibarko kale batekoa] neuk egindakua da, baiña estu ibilli nitzan. Juanito etortzen zan etxera, eta “hi, aklarau ezak hori, edo illundu ezak beste hori. Hi, teillatua urdiña pinta dok!”. Halaxe amaittu naban, bestiek esandakuei kaso eginez.

Urtarrilean...

JAIOAKOAK



Ines Diego Buezo
Urtarrilak 14
Ricardo eta Yolanda



Nahia Moreno Caballero
Urtarrilak 13
Aitor eta Ana



Onar Carcedo Boyer
Urtarrilak 21
Imanol eta Carolina



Egoi Gonzalez Rodriguez
Urtarrilak 27
Joseba eta Marian




Nere Irureta Elorza
Urtarrilak 30
Asier eta Izaskun




Bilal Attigui
Urtarrilak 5
Abderraffik eta Fatima



Sare Landa Sastre
Urtarrilak 14
Aitor eta Amaia



Issam Bassou
Urtarrilak 15
Mohamed eta Naffisa




Asier Diez Zambrano
Urtarrilak 21
Oscar eta Carmen



Ian Maruri Galarraga
Urtarrilak 29
Iban eta Ainhoa



Sandra Salguero Cortes
Urtarrilak 24
Justo eta Janire



Laia Martinez Astigarraga
Urtarrilak 25
Igor eta Olatz



Garazi Astorkia Ansola
Urtarrilak 26
Iosu eta Agurtzane



Iker Urbieta Neira
Urriak 1
Joseba eta Marian



Yahaira Calle Alves da Silva
Urtarrilak 26
Jose Luis eta Adriana

HILDAKOAK

Camila Gonzalez Gallego • 90 urte • Urtarrilak 3
Manuel Bernardez Trejo • 73 urte • Urtarrilak 12
Justa Garcia Moreno • 88 urte • Urtarrilak 17
Arantza Uriguen Aranburu • 72 urte • Urtarrilak 25
Lorenzo Juaristi Arostegi • 83 urte • Urtarrilak 26
Fernando Azpiaz Urribetxeberria • 77 urte • Urtarrilak 30
Ramon Zabala Mendizabal • 71 urte • Urtarrilak 30

ETXE BERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilaibeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva
Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Modesto

Goizean goiz egiten zenituen ibileretatik eza-gutzen zintudan. Bi eskuakin egunkariz beteriko karritoari tiraka, Aingeru Guardako banaketa egitera joaten zinen. Uda edo negua izan, alkandora hutsean; akaso, guardasola soinean.

Igandea edo asteazken soila izan, *Egunkaria* edo *Gara* eskatu, eta haien DVD, ipuin eta gehigarriak barne, luze ibili zara Mendaroko auzoetan, egunkari aleak besapean hartuta, kalerik kale, etxerik etxe, eta aterik ate.

Begietan inongo gorroto izpirik gabe eta ironia xume hori ezpainetan duzula, makina bat urtean erreztu diguzu bizimodua.

Ez zenuen agendarik behar eskatutakoa zintzo gure atearen bestaldean uzteko; batzuetan hasierako orrialdeak zimurtuta, besteetan blaituta, baina beti hortxe, zain.

Akabo pijaman eskailerak jaitsi eta egunkaria irakurriz gosaltzeko betiko ohitura eroso. Akabo Zakilixutek eragindako eguneroko irrifar goiztiarra. Ez dugu beste erremediorik.

Hemendik aurrera, behin egunkaria erosita, tabernaren kanpoaldean, kafea, zigarreta eta egunkaria aurrean ditugula batuko gara, kale gozorian. Modio, bejondeizula!

J.L. Zubiaurre ☞

Eraso sexistarik ez!

Beste behin, sistema patriarkarrak bere aurpegi zantarrena erakutsi digu gure herrian. Domekan, beste emakume batek bikotekidearen eraso jasan behar izan zuen. Gertakari tamalgari honen aurrean, zera adierazi nahi dugu Elgoibarko Emakumeon Asanbladako kideok:

Gertakari hau arrazoi ridikuluekin justifikatzeko intentzio ororen aurrean, ezin dugula gertatutakoa kasu isolatu moduan aztertu, ez bada sistema patriarkarren episodio bezala. Sistema horrek botere harreman zapaltzaileen estruktura dauka oinarrian; gizonen boterearen emakumearen botere gainjarri bat duenaren pentsamendu ezkutukoa ahalbidetzen duena, eta horren ondorio dira horrelako gertakariak.

Hala, orain arte bezala kalera atera eta horrelako erasoei erantzutea da gure lana. Kontzientzia feminista landuz, egunez-egun herri partekide baten alde borrokatzea da agure apustua. Euskal Herri feminista, gure helburua.

Beste emakume batek horrelako erasorik jasan aurretik, lotu borrokara!

Azkenik, domekan egoera latz hura pairatu behar izan zuen emakumeari gure babes eta elkartasuna adierazi nahi diogu; zuretzako gure indar eta animo guztiak.

Gora borroka feminista! Erasos sexistarik ez!

Elgoibarko Emakumeon Asanblada ☞

Eskerrik asko, Mendaro

Mendaro ikastolako Arno guraso elkarteak eskerrak eman nahi dizkie joan zen astean santa eskea antolatzen jardun zuten guztiei, eta baita, era berean, kantarako batu zirenei eta Mendaroko herriari ere.

Arno guraso elkarte ☞

Datorren urtera arte!

Otsailaren 4a oskarbi esnatu zen, eta dena gure alde genuen, urteroko legean, baserri kantuan eta eskean jarduteko. Inoiz baino jende gehiago bildu ginen, gainera, herriko plazan: bost koplari, lau trikitalari eta koruetan kantuan jarduteko hogeitaz lagun. Zahar eta gazte, mutil eta neska, betikoak eta berriak, denak ere tradizioaren sokari heltzeko prest.

Bi taldetan banatu ondoren, batek Idotorbeiko eta Aiastiako bidea hartu zuen; besteak, berriaz, Sallobentekoa eta Urruzunokoa. Zazpi ordu pasa isildu gabe eman ondoren, 48 etxe koplatu genituen. Askok dira, baina ez ginen guk nahi genuen guztietara iritsi. Barkamena eskatu nahi dizuegu gure zain egon eta kale egin genizuen baserriarroi. Datorren urtean ailegatuko gara zuenera ere.

Izarrak goitik begira genituela, 22:30ak alde-ara arimatu ginen Aiastiako Kalamua soziedadeara. Han zeuden gure zain Agustin eta Balentin, mahaia jantzita eta lapikoak beteta zituztela. Estimaten dizuegu, benetan, guregatik egiten duzuen.

Datorren urteko 20. urteurrena izango da. Zapatuarekin batera iritsiko da, gainera, otsailaren 4a, eta saiatuko gara zerbait berezia prestatzen. Merezki duelako Santa Agedak; merezki duzelako baserriarrek; merezki dugulako euskaldunok. Eskerrik asko, denoi, eta datorren urtera arte!

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea ☞



**Zuhaitz
Gurrutxaga**

Irailean ezagutu nuen Urko Vera. Lemoan taldekide ginen, eta mutila pozik zen bigarren B mailan aritzeko aukera zuela eta. Ez du gaztaro

erraza izan. Oso gazte zela, ikasketak utzi eta lanean hasi beharra izan zuen, nahi eta nahi ez, etxeko beharrak zirela eta. Lezaman urteren bat egin ostean, futboleko maila apalenetatik hasi eta hirugarren mailaraino talde askotan ibili zen, Lemoako taldearen deia jaso zuen arte. Orain lau bat hilabete, beste hainbat euskal herritarri gertatu bezala, lanetik bidali zuten, krisia zela eta. Ordura arte, egunean zortzi orduz lan egin ostean, 19:00etan entrenamendura joan behar izaten zuen.

“Taldekide guztion pozerako, gure lagun Urkok txikitako ametsa bete du”

Orain, ordea, halabeharrez futbolera bideratu beharko ditu bere energia guztiak. Lemoako soldata ez da handia, eta Urkok taldekide guztien arropa eramaten zuen Lemoatik urrun entrenatzen genuen egunetan, ordainetan diru xehe apur bat irabazteko. Mutil apala da Urko, dirua irabaztea zenbat kostatzen den dakien horietakoa. Aurrez, igeltsero, kale garbitzaile edota transportista gisa lana egindakoa da bera. Bizpauru hilabetez golak sartu eta sartu ibili da gurean, eta, ezustean, Athletic taldearen deia jaso zuen orain bi aste. Inork gutxi espero dezake Lemoaren pareko talde txiki batean jokatzeko dabilela lehen mailako talde batek hots egitea. Ametsak batzutan betetzen dira, ordea, eta taldekide guztion pozerako, bihotz oneko gure lagun Urkok txikitako ametsa bete du, gutxien uste zue-nean. Amets egiten jarraitu beharko dugu, Unai!



**Unai
Arrieta**

Ametsak zibilizazioak eta mundua mobilizatu izan dituzte. Ametsen izenean gizateriarantzako aurkikuntza handiak lortu izan dira, baina baita ankerkeria bortitzak ere. Bakoitza bere ametsaren zoroak bizi du, Zuhaitz. Adituek diotenaren arabera, ametsak oroitzea goi mailako kirolari askoren bereizgarrietako bat da. Gezurra dirudien arren, ametsak gogoratzea kirol errendimenduan garrantzia handia duen gaitasuna da.

“Ametsak etorkizuneko gertaeren bidea alda dezakete”

Aparteko lorpenak erdietsi izan dituzten kirolari askok aitortu izan dute garaipena imajinatu eta amestu bezala gertatu izan zela. Badirudi ezarritako helburuen lorpenean aurrez izandako amets eta desirek garrantzia handia dutela. Nago, Zuhaitz, garaipena amestea hau lortzeko eta erdiesteko lehen urratsa dela. Ametsak aurretiazko agertoki mentaletan jartzen gaituzte, irudimenezko egoera atseginak sortarazten dizkigute eta zenbaitetan aparteko ahalmen eta indarra sentiarazi. Etorkizuna, gauzak alda daitezkeen lekua eta unea da, eta ametsak etorkizuneko gertaeren bidea alda dezakete. Bihar gertatzea desio dudanarekin amets egiten dut gauero: Valladoliden larunbat honetan dugun partida irabaztearekin, maite ditudan horien gertutasunarekin, euskararen eta Santa Graziko maskaradaren biziraupenarekin, beste eredu-ekonomiko batekin, berdintasunarekin, inolako indarkeriarik gabeko Euskal Herri burujabearekin...



I. URTEURRENA

LOLA ENDEIZA ZUBELDIA

Cleto Iglesias Mendieta ren alarguna

2010eko otsailaren 9an hil zen. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Sortu alderdia sortu du ezker abertzaleak, eta estatuetan argi laga du helburu politikoak lortzeko indarkeria oro errefusatzeko duela, ETarena barne.

Zelan hartu duzu Sortu taldearen sorrera?



Ovidio Campello
40 urte, jubilatua

Oso ondo hartu dut. Hitzetatik ekintzetara pasatzea espero dut, baina, oro har, oso positiboa izan dela iruditzen zait. Pozik gaude. Epailiek erabaki beharko dute hautakundeetan parte hartuko duten ala ez, baina badirudi aldaketa benetan datorrela.



Jose Cid
58 urte, aurre jubilatua

Aldaketa hori eskertzekoa da, baina ikusi beharko da esandakoa betetzen duten ala ez. Kontu honek errespetua da funtseskoena, eta, nire ustez, bi aldeek elkar errespetatu behar dute. Elkarrizketa sustatu behar da, eta hilketak alde batera utzi. Bakean bizi nahi dugu.



Nekane Varona
42 urte, irakaslea

Egia esan ez naiz ezertaz enterratu! Umekin ez daukat telebista ikusteko astirik, eta ez dut ezer entzun, baina notizia ona da. Bertakok dira, eta orain arte daukaguna baino hobea izango dela espero dut. Aurrerantzean gauzak hobetzea nahiko nuke.



Jorge Urbieto
67 urte, jubilatua

Oso ondo hartu dut. Sorpresa izan da niretzat, baina izugarri poztu naiz. Gainera jende desberdina agertu da alderdiaren aurkezpenan, eta konfiantza handia eman didate. Bide onetik goazela iruditzen zait, eta nire babes emango diet, lehen ere eman nien-eta.


■ SEMAFOROA



Elgoibarko tren geltokian ez dago langilerik: “Elgoibarko tren geltokian langileren bat behar da, arazoak daudenean jendeari laguntzeko. Orain dela egun batzuk, edadeko emakume batek trena galdu zuen, eta beste ordubetz egon behar izan zuen zain. Garaiz joan zen geltokira, baina ez zuen txartelak ateratzeko makinarekin asmatzen. Beste herriar batek lagundu zion txartela ateratzen, baina gero, arazoak izan zituen nasara pasatzeko dagoen tornuarekin, eta hantxe geratu zen emakumea. Horrelako kasuak gehiago gertatu ez daitezten, langile bat jarri beharko litzateke”.



Txalo bat eman nahi diot Udalari, Ubitarte plaza urbanizatzeagatik: “Hilabeteetan obrak jasan behar izan ditugu, baina merezi izan du: saneamentu sare berria daukagu, hirigintza-oztopoak kendu dituzte, lursoru berria jarri dute, umeentzako parkea... Nire ustez obrak jasan behar izanak ordainsari ona izan du. Eta barrakak gure auzora ekarri izana, ideia bikaina iruditu zitzaidan. Giro ona sortu zen inguruan, eta horrekin, Ubitarte auzoa inaguratuta geratu da”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrene@elgoibarkoizarra.com 943 744 112

Erretratu zaharra



1954-55

Argazki hau 1954. urte aldera Plaza Txikiko eskola publikoetan ateratakoa duzue. Claudio Monreal maisuaren gelako multil koxkorrak dituzue irudikoak. Goi-goian Claudio Monreal bera dago, eskolako atean. **Goiko lerroan:** Jesus Mari Gabilondo, Sabin Txurruka, Jose Luis Tadeo, Tomas Barandiaran, Jose Antonio Iriondo, Luis Mari Barandiaran, Iñaki Murua, eta Carlos Larrañaga. **Erdiko lerroan:** Juan Cruz Igartua, Juan Ansola, Carlos Ortueta, Jesus Mari Canales, Manolo Osoro, Pako Gabilondo, Juan Iriondo, Jose Agustin Olasolo, eta Juan Mari Andonegi. **Behean, ezkerretik eskumara:** Luis Altuna, Juan Esnaola, Manuel Elorza, Javier Mujika, Santi Oria, Vicente Saiz, Julian Iriondo, Manolo Ibarluzea, Gabino Saiz, eta Txus Arakistain.



I. URTEURRENA

JOXE MARI BETELU AZURMENDI

*Gure ondotik joan zinen
baino gure bihotzetatik ez,
beti izango zaittugu gogoan.*

Etxekoak



Auzitegi Nazionalaren epaia baliogabetu eta Otegiren epaiketa berriro egiteko agindu du Gorenak

Arnaldoren aldeko plataformak mahai ingurua antolatu du hilaren 24rako

Espainiako Auzitegi Gorenak baliorik gabe laga zuen martitzenean Espainiako Auzitegi Nazionalak Arnaldo Otegi ezker abertzaleko kideari jarritako bi urteko kartzela zigorra. Jose Maria Sagardui *Gatza* presoaren omenaldian Otegi terrorismoa goratu zuela ebatzi zuen Auzitegi Nazionalak urtarrilaren 26an, baina epaiketa hartan Angela Murillo epaileak aurreiritziekin jokatu zuela esan du orain Auzitegi Gorenak, eta ez zela inpartziala izan ezker abertzaleko bozeramaileari ETaren indarkeria gaitzesten zuen galdetu zionean. Hala, epaiketa hura baliogabetu eta berriro egiteko agindu du orain Juan Saavedra buru duen epaimahaiak. Epaian zehaztu dute, gainera, Otegi beste epaimahai batek epaitu beharko duela.

Arnaldo Otegi 2009ko urritik dago preso –gaur egun Logroñon (Espainia)–. Batasunaren Mahai Nazionala berriro osatzen ari zelakoan kartzelatu zuten.

Euskal Herriko egoera politikoari buruzko mahai ingurua

Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak “...eta orain zer?” mahai ingurua antolatu du otsailaren 24rako. Hasier Etxeberria kazetari eta idazleak zuzenduko du mahai ingurua, eta izen handiko lau lagunek parte hartuko dute: Mariano Ferrer kazetariak, Arnaldo Otegiren abokatu Jone Goirizelaiak, Xabier Arzalluz EAJko Euskadi Buru Batzarreko lehendakari izandakoak eta Martxelo Otamendi *BERRIA* egunkariko zuzendariak. Euskal Herriko egoera politikoa izango dute aztergai. Mahai ingurua Herriko Antzokian izango da, eta 19:00etan hasiko da. Hala ere, interesatuek jakin dezatela Internetez jarraitzeko aukera ere izango dela, *BARRENEK* zuzen-zuzenean emango duelako www.elgoiBARREN.net webgunean. Era berean, Arnaldo askatu, politika askatu plataformaren webgunean ere ikusi ahal izango da, zuzenean baita ere (www.arnaldotegi.com).

Elgoibartar bat atxilotu dute bikotekideari eraso izana leporatuta



Ertzaintzak 36 urteko gizonetako bat atxilotu zuen domekan Urasandi auzoan, 30 urteko neska lagunari erasotzea egotzita. Lekukoek eman zioten abisua Ertzaintzari, emakume bat garra-sika ari zela eta. Biktimak, erasotzailearengandik ihesi, etxe ba-

ruko patoria salto egin zuen, bost metrotik behera, eta Mendaroko Ospitalera eraman behar izan zuten zaurituta. Ertzainek etxean bertan atxilotu zuten ustezko erasotzailea, eta polizia iturrien arabera, atxilotuak “oldarkor” aurre egin zien. Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, zapatutik etxean giltzapetuta zeukan gizonetakoak emakumea, etxetik alde egingo ziola ohartarazia ziolako. Ustezko erasotzaileak aurrekariak ere baditu. Izan ere, 2010. urteko martxoan ere atxilotu zuten, orduko bikotekideari erasotzeagatik. Ertzaintzak esandakoaren arabera, gizonetako baldintzapean aske laga zuten astelehenean bertan, eta epaitu bitartean, hamabostean behin epailearen aurrean agertu beharko du.

Eraso hori salatzeko, eguaztenean elkarretaratzea egin zuten 200 lagun inguruk, Elgoibarko Emakumeen Asanbladak antolatuta. “Eraso sexistarik ez!” izan zen erabili zuten leloa. Era berean, Elgoibarko Udaleko Tokiko Batzordeak urgentziazko bilera egin zuen astelehenean bertan, eta han emakumeen indarkeria ororen kontrako gaitzespen idatzia hitzartu zuten.

Adingabeak tabernetan sartzen ez direla zaintzeko kanpaina hasi dute udaltzainek eta ertzainek elkarlanean

Bi zapatutan, 16 urtez beherako 51 gazte identifikatu dituzte tabernetan

Bi zapatu arratsaldetan (urtarrilaren 15ean eta 29an) 51 adingabe identifikatu zituzten ertzainek eta udaltzainek herriko zenbait tabernetan, elkarlanean egindako polizia operazioan. 16 urtez beherakoek debekatuta dute edari alkoholdunak saltzen dituzten establezimenduetan sartzea, beti ere gurasoekin edo euren tutoreekin sartzen ez badira behintzat. Hala, "legea betearazteko", herriko zenbait tabernetan sartu eta identifikazioak egiten hasi dira ertzainak eta udaltzainak.

"Identifikatutako 51 lagun horiek Landa, Truk, Ilunpe eta Kartuxo tabernetan topatu zituzten", azaldu zuen Alfredo Etxeberria herriko alkateak prentsarekin egindako bileran, eta, era berean, zehaztu zuen identifikatutako adingabeen %92 ez zirela elgoibartarrak. Horren inguruan zera esan zuen: "Kanpotik datozen gazteen gaineko ardura ez da gurea". Gazte horien gurasoen eta bizi diren lekuko agintarien ardura dela uste du alkateak, eta "erantzukizun handiagoz" jokatzeko eskatu die: "Ikusi besterik ez dago trenetik jaisten diren gazteak nola etortzen diren. Edanda etortzen dira asko, eta alkoholdun edariak eskuan hartuta jaisten dira trenetik".

Udaltzainek eta ertzainek tabernan adingabe bat identifikatzen



gutun bat ere bidaltzen diete gero etxera, gertatutakoa azaltzeko. Tabernarietara, bestalde, espedientea irekitzen diete, eta 500 euro eta 1.500 euro arteko isuna jartzen diete. Elgoibarko alkateak dio tabernariak gehiago inplikatu behar direla arazo honetan: "Euren ardura da tabernan adingaberik duten egiaztatzea".

Jaurlaritza eta IMH eskutik, euskararen erabilera sustatzeko



Eusko Jaurlaritzak eta IMHk lankidetzara hitzarmena berriro dute, alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko. 2006an hiru urterako protokoloa sinatu zuten bi aldeek, eta atzo berriro egin zuten. Hala, bi urtean IMHk 30+10 mintegia antolatzen jarraituko du, glosategi terminologikoa elikatuko du, Jaurlaritzak sortuko dituen erreminta edo baliabideak probatuko ditu, eta beste eragile batzuekin elkarlanean arituko da, langileentzako euskarazko zerbitzu eta prestakuntza eskaria eta eskaintza sustatzeko.

Legalizazioaren alde elkartu dira dozenaka elgoibartar

Alderdi berria sortu du ezker abertzaleak: Sortu. «Sortu, proiektu politiko berri honek, Euskal Herrian hasi den fase politiko berriari erantzun nahi dio. Euskal gizartearen itxaropen eta irrikeri erantzun nahi die Sortuk, bake eta konponbide demokratikoko agertoki bat eraikitzeko». Hala ere, aurkeztu zuen talde sustatzaileak martitzenean. Orain zalantza da udal eta foru hauteskundeetara aurkeztea lagako ote dioten. Eta hain justu ere, alderdiari hauteskundeetara aurkeztea laga diezaiotela eskatzeko, elkarretaratzea egin zuten dozenaka elgoibartarrek zapatuan, *gora ezker abertzalea, legalizazioa orain* lelopean.



Santa eskea, argazkitan



Elgoizkia lagun zutela santa eskean kopia kantuan ibili dira aurtan ere Elgoibarren eta Mendaron. Elgoibarko Izarrako Santa Ageda koruak bezperan, otsailaren 4an, koplatu zituzten Idotorbe, Aiastia, Sallobente eta Urruzuno baserri-auzoak. Guztira, 48 baserri koplatu zituzten, eta 1.600 euro inguru batu zituzten euskara elkartearantz. Elgoibar Ikastolako umeak ere bezperan irten ziren herriko kaleak kopia doinuaz alaitzera. Zapatuan, Santa Ageda egunean, Etxegiña taldekoen txanda izan zen. 50 lagun inguruk jardun zuten kantuan, estreinako aldiz batzuek, eta 1.334 euro jaso zituzten Caritasentzako. Mendaron ere zapatuan irten ziren santa eskean. Hiru taldetan banatuta Mendaroko baserri eta kaleetan aritu ziren kantuan, eta guztira, 2.900 euro batu zituzten, horietatik 1.600 euro Arno Guraso Elkartearantz. **Argazki gehiago eta bideoak:** www.elgoiBARREN.net



Gogotik abestu zuten Etxegiña taldearekin santa eskean irten ziren 50 koplariak.



Idotorbe, Aiastia, Sallobente eta Urruzuno baserri-auzoetako 48 baserri koplatu zituzten Elgoibarko Izarrako Santa Ageda koruek.



Bista ederraz gozatu daiteke kopia zaharrak abesten diren bitartean.



Txapela buruan eta makila eskuan.



Mikel Olaizola eta Ziarda baserri batean bertsotan.



Hiru taldetan banatuta koplatu zituzten Mendaroko baserri eta kaleak Santa Ageda egunean.



Azken bi urteetan ez bezala, santa eskean aritzeko eguraldi ona izan zuten kantuan irten zirenek.



Gregorio Larrañaga 'Mañukorta', Beñat Lizaso, Juanito Loiola eta Aitzol Urain betsoariarekin aritu ziren santa eskean Mendaron.



Elgoibarko Izarrako koplariak Garagartza baserrian, Sallobente bailaran.



Etorkizuna ziurtatuta dago.



Elgoibar Ikastolako ikasleak Santa Ageda Bezpera Egunean irten ziren kalejiran.



Kepa Urain, Etxegiña taldeko koplari nagusia azken 31 urteotan.

Elgoibarren 1.069 etxebizitza eraikitzea aurreikusten dute Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren barruan

Udalak dio 257 etxebizitza huts daudela, baina ezker abertzalea ez dator bat datu horrekin

Azaroaren 25eko Osoko Bilkuran udalbatzarrak onartu zuen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak hamabi urtean Elgoibarren 1.069 etxebizitza eraikitzeko bidea ematen du. Bidea emateak, hala ere, ez du esan nahi etxe horiek guztiak eraikiko dituztenik. Beste kontu bat da: “behar beste” etxe eraikiko dira, baina gehienez ere, 1.069. Agiri horretan jasotakoaren arabera, etxebizitza horien erdiak pasatxo (559) babestutako etxebizitzak izango dira, eta gainerako 510ak erregimen librekoak.

Etxebizitza horiek guztiak eraikitzeko, jakina, lekua behar da, baina Udalak dio erdigunean erabili gabe dauden industria guneak botata eta Sigma auzoa handituta badagoela horretarako aukerarik. Urasandi Berrin, Kaminerokuan, Olaizagan eta Sigman eraikiko dituzte etxebizitza berriak. Horrekin lotuta, Elgoibarren hutsik dauden etxebizitza kopurua ere zehaztu du Udalak: 257. Bi irizpide hartzen ditu kontuan horretarako: inor ez egotea errol-datuta etxe horietan eta kontsumorik ez izatea.

Elgoibarko ezker abertzalea, baina, ez dator bat Udalak emandako datu horrekin. 1996ko, 2001eko eta 2007ko datuak eman ditu ezker abertzaleak (www.elgoibartarrok.org), eta azkeneko datuei erreparaturaz gero, Elgoibarren gutxienez 635 etxe huts daudela ondorioztatu du. Datu horiek 2007koak dira, baina kontuan izanda, azkeneko urteotan etxebizitza berri asko egin direla, ezker abertzaleak uste du ezin direla lehen baino etxe gutxiago egon hutsik. Hala, “gezurretan aritzea” leporatu dio Alfredo Etxeberria alkateari. “PNVko alkate-tza hau konstruktoreen esklabu da, eta berri-ze ere, justifikaezina zurrizten ari dira, etxe gehiago egiteko asmoarekin”, diote euren webgunean.

Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak aurreikusten duenaz gain, Elgoibarren babes ofizialeko etxebizitza bat lortzeko dau-



Urasandi berriko irudia. Inguru horretan etxebizitzak egin nahi dituzte.

den eskaera kopuruari buruzko datuak ere jakinarazi ditu Alfredo Etxeberriak. Etxebidenden babes ofizialeko etxe bat erosteko edo alokatzeko eskaria egin dutenen artean, 1.374 lagunek aukeratu dute Elgoibar lehenengo aukera gisa. Horietatik, baina, 411 lagun bakarrik daude Elgoibarren errol-datuta. 1.374 horietatik 838k etxea alokairuan hartu nahi dute, eta horietatik 235 dira Elgoibarren errol-datutakoak. Etxebiderra eskaera egin duten gainerako 1.061 lagunek etxebizitza erosi egin nahi dute, eta horietatik 411 dira herrian errol-datutakoak.

Alegazioetarako epea

Hiri Antolamendurako Plan Nagusia beste fase batean sartu da, eta orain, alegazioak egiteko aldia zabaldu da. Urtarrilaren 3an jarri zuten ikusgai Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak jasotzen duena San Bartolome kaleko lokal batean [Muruamendi-raz goxotegiaren ondoan], eta herritarrek martxoaren 15a arteko epea dute plan horren kontrako alegazioak aurkezteko.

Alegazio horiek Elgoibarko Udaleko Hirigintza Sailean edota erakusketa dagoen aretoan bertan egin daitezke [Erakusketa otsailaren 28ra arte egongo da zabalik]. Udalak jakinarazi du erakusketa zabaldu zenetik gaur arte, 700 lagun baino gehiago pasatu direla handik. Nolanahi ere, Internetez ere badago aukera plan orokorrari buruzko plano eta agiriak eskuratzeko. Elgoibarko Udalaren webgunean topatuko dituzue (www.elgoibar.org), Hirigintza Sailaren atalean.

Alegazioak egiteko epea amaitzen denean, erredaktore talde batek txosten bat osatuko du jasotako alegazio guztiekin, eta ondoren, aholkulari batzordeak gaiari buruzko behin betiko txostena osatuko du. Hain justu ere, txosten hori izango da osoko bilkurara eramango dena, udalbatzarrak onar dezan. Pauso horiek guztiak eman ostean, Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailletara bidaliko du, eta haien oniritzia jasoz gero, testua behin betiko onartu eta indarrean jarriko dute.

‘El título de este espectáculo no es mi madre’ antzerkia izango da gaur

Sexpeare taldeak aurkeztuko du Herriko Antzokian

Sexpeare taldeak *El título de este espectáculo no es mi madre* antzezlanaren aurkezpena egingo du gaur Herriko Antzokian. Marco hil berri da, eta errenkarnazio prozesuan dago, eta horretarako, bizitzan izan den guztia-ri uko egin beharko dio. Ultra munduko eskale bat izan arren, jendeak Marco atsegin du. Unibertso hotz batean murgilduko da, eta mota askotako gizaki bizidunekin topo egingo du. Azkenean, Galiziara iritsiko da, olagarroaren lurraldera.

Rulo Pardo eta Santiago Molero aktoreak dira obra honetako protagonistak, eta David Ottoneren kolaborazioa izango dute.

Komedia hau 20:30ean hasiko da. Sarrerak Kutxanet zerbitzuaren bidez eros daitezke.



Munlet bikote mendaroarrak ‘Infección’ bideoklip berria aurkeztu du



Infección izena dauka Munlet bikote mendaroarraren bideoklip berriak. Cañon diskoaren barruan sortu dute, eta disko luzetik atera duten bigarren “single modukoa” dela azaldu dute elektro punk taldeko kideek. *Infección* talde mendaroarraren bigarren bideoklipa da, eta Saray Blades argazkilaria eta errealizatzaile bilbotarrak zuzendu eta editatu du. Zuzendari gaztea den arren, curriculum osatua dauka dagoeneko Bladesek eta berak eginiko film laburrek eta bideoklippek sari bat baino gehiago irabazi izan dituzte. Munlet taldearen bideoklipa ikusgai dago www.elgoibarren.net atari digitalean.

Prestakuntza kanpainaren bigarren edizioa

Industria eta prestakuntzaren arloko eskaintza bultzatzea “ezinbestekotzat” jotzen du Elgoibarko Udalak. Hori dela-eta, hainbat jarduerara antolatuta ditu esparru estrategiko hori sustatzeko. Aurtengo egitaraua otsailaren 16an hasi, eta apirilaren 2an bukatuko da. Besteak beste, ondorengoak landuko dira kanpaina honetan: gurasoentzako coaching eta aholkularitza, ikasleentzako formazio saioak eta industria arloko enpresetarako bisitak. Bestalde, martxoaren 23an erreminta makinari buruzko zineforuma eta prestakuntzari buruzko bigarren feria egingo dute.

Euskara sustatzeko jardueretarako diru laguntzak

Elgoibarko Udalak euskara sustatzeko jardueretarako diru laguntzak emango ditu. Besteak beste, euskaltegietatik kanpora edo barne-tegietan euskara ikasteko, euskara hutsezko ikastaroetan parte hartzeko, establezimenduetako errotulazioak euskaratzeko edota enpresetan euskara bultzatzeko laguntzak emango ditu. Interesatuak 943 744 366 telefonoan eskatu dezakete informazio gehiago. Era berean, irabazi asmorik gabeko kultur talde eta elkarteek laguntzak emateko oinarriak ere onartu dituzte. Horri buruzko informazioa 943 741 050 telefonoan eskuratu daiteke.

Emakumearen egunerako ekintzak antolatu ditu Haizeak

Haizea emakume taldeak hainbat ekintza antolatu ditu Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira. Martxoaren 8an izango da Emakumearen Eguna, eta ekintzak hilaren 5ean egingo dituzte. Besteak beste, Munduko Dantzak izeneko ikuskizuna izango da Kultur Etxean, eta ondoren, bazkaria egingo dute Sigma jatetxean. Informazio gehiago Pitxintxun eskuratu dezakezue.

Aitor Salaberria Morkaikoko eskiazaileak urrezko domina eskuratu du Luchon Haute Montagne eski proban

Elgoibarko sei eskiazailek hartu dute parte

Aitor Salaberria Morkaikoko eskiazaileak urrezko domina lortu du Luchon Haute Montagne lasterketako B kategorian. Ibilbide laburragoa da B kategorioa, eta berez, ez da txapelketa, baina denborak hartzen dira, eta Salaberriak egin zuen denborarik onena. Aurten, Bourg d'oeilen inguruan elur gutxi zegoelako, Peyragudes inguruan jokatu zuten lasterketa, eta Morkaikoko sei eskiazailek hartu zuten parte guztira. Proba Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria zen. Iñigo Lariz izan zen gainerako elgoibartarren artean onena, eta bosgarren postuan amaitu zuen lasterketa. Aste guztia gaixorik egon arren, hirugarren postua eskuratzetik gertu ibili zen Lariz.



Otsailaren 21ean hasiko dira igeriketa ikastaroak.

Igeriketa ikastaroen hurrengo txandak otsailaren 21ean hasiko dira. Haurrentzako nahiz helduentzako ikastaroak egongo dira aukeran, eta interesatuek otsailaren 14tik 16ra bitartean eman beharko dute izena, Olaizaga kiroldegian. Informazio gehiago eskuratzeko 943 744 415 telefonora deitu daiteke.

CD Elgoibarrek banatu ditu Gabonetako otarrak



CD Elgoibarrek Gabon Zahar feria egunean egin zuen Gabonetako zozketa, eta banatu ditu otarrak: Lehenengo saria Jose Luis Rubiori tokatu zaio, eta bigarrena, Garbiñe Gorostizari. Opariz beteriko otar bana jaso dute. Zorionak!



ESKERTZA

MIREN LEYARISTI ETXEBERRIA

"Parapan"

2011ko otsailaren 9an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Debarrena BTT martxa ekainaren 26an egingo dute

lazko edizioan 380 lagunek hartu zuten parte



Debarrena BTT martxa ekainaren 26rako antolatu dute Debegesak eta Kirol Patro-
natuak, Eibarko Bikeibarren, Mutrikuko Amerikutzen eta Elgoibarko Mintxeta Atletis-
mo Taldearen laguntzaz. Astebete aurretik Quebrantahuesos zikloturista lasterketa
jokatzen da, eta, astebera, Extreme Bardenas btt marathoia. Horregatik, ekainaren 26a bi
erroberatan ibiltzeko data aproposa dela uste dute antolatzaileek. Aurtengoa hirugarren
edizioa izango da, eta beti bezala, partaideek bi ibilbideren artean aukeratzeko aukera izan-
go dute: batetik, luzea, 45 kilometrokoa, eta, bestetik, motza, 25 kilometrokoa. Irteera de-
nek batera egingo dute, Mintxetatik. lazko edizioan 380 lagunek hartu zuten parte, eta aur-
ten ere proba arrakastatsua izatea espero dute. Antolatzaileek aurreratu dute probaren
amaieran sorpresaren bat egongo dela.

Mintxetako korrikalari alebinek irabazi zuten Lasarteko krosa taldekako kategorian



Lehen postuan sailkatu ziren Mintxeta taldeko korrikalari alebinak Lasarteko kro-
sean, taldeka, bai mutiletan eta baita nesketan ere. Horrez gain, infantiletan bigarren lekuan
geratu ziren neskek. Bakarkako kategorian, bestalde, loar Urkiri bigarren postuan gera-
tu zen infantiletan, eta Lorea Santiago hirugarrena izan zen kadeteetan. Era berean, Iña-
ki Sagarnak laugarren postuan amaitu zuen proba jubeniletan, eta, beteranoetan, Jesus
Arrietak zortzigarren egin zuen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Amorebieta 4 (3. maila)
Elgoibar 3 – Lazkao 0 (Erreg. pref.)
Aurrera Ondarroa 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 1 – Beti Gazte 2 (Pref.)
Eibartarrak 3 – Elgoibar 2 (Kad. B)
Elgoibar 0 – Orioko 3 (Ohorezko inf.)
Real Union 0 – Elgoibar 3 (Uze)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 3 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Beloki 16 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Azkoitia 13 (1. mailako nag.)
Zestoa 0 – Lagunak 22 (1. mailako jub.)

PALA

Lagunak 25 – Beloki 14 (2. mailako nag.)
Usurbil 25 – Lagunak 20 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

La Bellota 1 – Concepto Createch Elg. 7 (1. maila)
King-Kong Elg. 4 – Lauburu 6 (1. maila)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 32 – Hegialde 23 (Sen. mut.)
Amenabar 33 – Aterpe Elg. 3 (Inf. mut.)
Ibaiondo 14 – Astigarraga Elg. 13 (Inf. nes.)
Ikus Elg. 46 – Pulpo 19 (Inf. nes.)
Berezaio 27 – Bankoa Elg. 23 (Inf. mut.)
Sporting 23 – Tecnifuelle Elg. 22 (Sen. nes.)
Grupo Eibar Elg. 31 – Kukullaga 28 (Jub. nes.)
Lauko 25 – Kukullaga 22 (Kad. nes.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12
11:00 Elgoibar – Mutriku Txiki (Kad. B)
16:30 Elgoibar – Antiguoko (Ohorezko jub.)
Domeka, 13
12:00 Elgoibar – Amaikak Bat/Mutriku (Aleb.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 12
13:00 Beristain Elg. – Arrate (Jub. mut.)
16:30 IMH Elg. – Zarautz (Kad. nes.)
18:00 Tecnifuelle Elg. – Muskiz (Sen. nes.)
Domeka, 13
11:00 Elgoibar – Arrate (Aleb. mut.)
12:15 Txarriduna Elg. – Aloña Mendi (Kad. mut.)

PILOTA

Barbakua, 11
22:00 Lagunak – Euskal Jolas (2. mailako kad.)

LANA

ESKAERA

- Gizona txofer edo igeltsero lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernan platerak garbitzeko edo sukaldean laguntzeko. Nagusiak ere zainduko lituzke. ☎ **671 343 612 / 943 531 931**
- Neska eskaintzen da adinekoak nahiz haurrak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo dendan lan egiteko. ☎ **662 267 569**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **650 152 866**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **634 042 115**
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egiten edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **618 163 061**
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest. ☎ **606 226 827**
- Neska eskaintzen da lanerako. Edozein lan egiteko prest. Ordu-tegi malgua. ☎ **646 977 562**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz edo orduka. ☎ **698 390 818**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Gauzez lan egiteko prest. Papelak ditut. ☎ **699 813 826**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Papelak ditut. ☎ **619 915 990 / 635 313 375**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **610 545 505**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **696 450 343 (Kevin)**
- Gizona pintore lanetarako prest. ☎ **610 017 571**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbitzaile, edo umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **608 474 923**

- Emakumea sukalde laguntzaile, edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **681 178 842**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **648 716 291 (Williams)**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **649 086 057 (Cristian)**
- Gizona eskaintzen da sukalde laguntzaile, igeltsero, banatzaile edo adinekoak zaintzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 579**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordu-tegi. Esperientzia daukat. ☎ **678 972 690**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest. Erizain laguntzaile, eta esperientziaduna. Arratsalde, edo pare bat orduz. ☎ **685 729 790**
- Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, sukaldean laguntzeko, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **617 981 037**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **687 114 707**
- Nikaraguako bikoteak nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia eta erreferentzia oso onak. ☎ **618 089 227**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna, eta erreferentzia onekin. ☎ **639 783 593**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **626 490 986**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea salgai Mendaron. Hiru logela, sukalde-jangela, komuna eta balkoi handia. ☎ **943 033 493 / 628 033 993**
- Etxea edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **664 705 888**
- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, sukalde, komuna eta egongela. Berritua, oso egoera onean. Prezio interesgarria. ☎ **688 658 183**

- Etxea salgai Urasandin. Hiru logela, bi komun, egongela handia, sukalde eta trastelekua. Egoera oso onean. Eguzkitsua eta bista onak. ☎ **628 525 471**
- Logela alokatzen da, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Lanean ari diren pertsona arduratsuentzat. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**

PARTIKULARRAK

- DBH titulua eskuratzeko eskola partikularrak behar ditut. Ingeles, gaztelera, euskara, matematika, fisika eta kimika klaseak jaso nahiko nituzke. ☎ **650 800 621**
- Hegaldi laguntzaile klaseak ematen dira Bilbon, 18 eta 30 urte artekoentzat. Neskek, 1,65 metroko altuera izan behar dute, eta mutilek 1,70 metrokoa. Lan mundurako aukerak. ☎ **944 793 358**
- LHko eta DBHko klase partikular individualizatuak ematen ditut. ☎ **665 759 858**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan, udaletxetik gertu. ☎ **672 422 237**
- Garaje marraduna alokatzen dut San Roke 5ean. ☎ **943 741 837**

BESTELAKOAK

- Bikotearentzako ohea erosiko nuke, somierra eta koltxoia. ☎ **697 282 539**
- Artzai txakur alemaniarra eta mastin nahasketako 2 urteko txakurarentzat eme bila gabilza, estaltzeko. ☎ **685 718 414**
- Mikrouhin labea oparitzen dut. ☎ **943 742 938**



“ELGOIBARKO MAPA TOPONIMIKOA: LEKU-IZENAK ETA KOKAPENA” ERAKUSKETA

Otsailaren 16tik 26ra Kultur Etxeko erakusketa gelan
Astelehenerdik ostiralera 19:00etatik 21:00etara,
eta larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara
eta 19:00etatik 21:00etara

Aurkezpena otsailaren 16an, asteazkena, izango da,
iluntzeko 19:00etan. Bertan izango dira toponimia
ikerketaren egileak, Nerea Alaba eta Amaia Pinacho,
eta Euskaltzaindiko tutorea den Mikel Gorrotxategi.

Erakusketaren helburua
herritarren ekarpena eta iritzia jasotzea da.

Antolatzailea:



elgoibar
16021-16022

Laguntzaileak:





• Mila zorion datorren martitzenean 5 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiakoen eta bereziki, Asierren partez.



• Zorionak, **Narrea**, asteazkenean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat guztion partez, eta bereziki, Dane-len partez.



• Zorionak, **Laura**, otsailaren 3an 11 urte egin zenituelako. Guraso Esther eta Luisenen partez.



• Zorionak, **Olatz**, asteartean 2 urte egin zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, ahizpa Izaroren partez.



• Zorionak, **Goiatz**, domekan zure urtebetetzea delako. Familiakoen eta bereziki, Arhane eta Sugarren partez.



• Sei urteko bide motza edo luzea. Zorionak eta segi zabaltzen zure magia.



• Zorionak, **Narrea**, gure maitia. 8 urte! Askomaite zaitugu. Muxuak. Iker, ama eta aita.



• Zorionak, **Oier**, 4 urte bete dituzulako. Gurasoen eta bereziki, Aimar eta Maialenen partez.



• Gure super sinpatikak 2 urte potolo egin ditu! Zorionak, etxekoan partez.



• Zorionak, **Haizea**, zure bigarren urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Ainhoaren partez.




• Zorionak, **Patxi**, zapatuan 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Markelen partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Nora**, 3 urte egin zenituelako otsailaren 8an. Oso ondo pasatu genuen senide eta lagun artean. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Nagore**, hilaren 15ean, 8 urte beteiko dituzulako. Ondo pasa eta patxo handi bat Miren, amatxo eta aita txoren partez.



• Zorionak, **Leire**, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Nora!** Patxo handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **bikotel!** 61 urte ezkontuta ez ditu edozeinek betetzen. Eskerrik asko eman diguzuenagatik. Besarkada bat. Ez galdu irribarre!



• 4 urte! Zorionak, Eneko, etxekoan eta bereziki, Joneren partez.



• Zorionak, **Conde anai-arrebak!** Gurasoen eta familiakoen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**NeKo bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Urtarrileko irabazlea: **MARCE CHECA**

Otsaileko saria: **GELEZKO MANIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegia eta arlandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

11 barixakua

Antzerkia

20:30 'El título de este espectáculo no es mi madre' Sexpeare taldeak antzetzuko du, Herriko Antzokian.

13 domeka

Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua Herriko Antzokian.
Egitaraua:
1. *Bandas de Rioja Alavesa*, martxa (Juanma Saez).
2. *Los esclavos felices*, obertura (J.C. Arriaga)
3. *Chorale for trombone and band*, (T. Huggens).
Bakarlaría Iban Guinea.
4. *Granada* (Agustin Lara).
5. *Os pássaros do Brasil*, fantasia (Kees Vlak).

16 eguaztena

Erakusketa

19:00 Toponimia: Elgoibarko leku izenak Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 26ra arte.

18 barixakua

Musika

22:30 Balerdi erdi Talde nafarrak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan. Sarrerak hiru euro ordaindu beharko dira.



Non ote dabil Ludo?

Otsailaren 18an gure lagunaren abenturen berri izango dugu, beti ere berak bidalitako jolasen bitartez.

Bigarren eskuko arroparen merkatua

jarriko dugu martxan zapatutik aurrera. Ekarri erabiltzen ez dituzun arropak, eta ea saltzen ditugun!!



B
BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri
ezazu
zure
publizitatea

OKINDEGIA

13 domeka EIZAGIRRE

FARMAZIAK (24 orduz)

- 11 Fernandez
- 12 Yudego
- 13 Yudego
- 14 Zabaleta
- 15 Etxeberria (Errosario)
- 16 Ibañez
- 17 Garitaonandia-Bidasolo
- 18 Etxeberria (Santa Ana)

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Balada triste de trompeta»

12, zapatua: 19:00/22:15
13, domeka: 19:00
14, astelehena: 21:30

«La montaña mágica»

13, domeka: 16:30

«Pa negro»

(Ongarri zinekluba)
17, eguena: 21:30



«Balada triste de trompeta» Espainia, 2010. Zuzendaria: Alex de la Iglesia. Aktoreak: Antonio de la Torre, Carolina Bang, Santiago Segura, Sancho Gracia, Fernando Guillen Cuervo. Iraupena: 107 minutu. 1937. urtean hasten da filma. Zirkoko tximinoak kaiolan daude txilioka, eta bien bitartean, kanpoaldean, Gerra Zibilaren zirkoak aurrera darrai. Javier eta Sergio pailazoen hil ala biziko borroka izango dute, dantzari baten maitasunagatik.

«Pa negro» Espainia, 2010. Zuzendaria: Agustí Villaronga. Aktoreak: Francesc Colomer, Marina Comas, Nora Navas. Iraupena: 108 min. 36ko gerraren ostean, Katalunian, Andreu umeak aita-seme batzuen gorpua aurkituko du basoan. Agintariek umearen aitari leporatuko dizkiote heriotza horiek, eta umea benetako hiltzaileen bila hasiko da.





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza", Bach loreak, P.N.L, jarnari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak, masajeak, doitze neurologikoa, astrologia medikuntza eta hipnosia). Familia konstelazio tailerrak. Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29- Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Anginei aurre egiteko masajea.

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

15-16:30

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera:

8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869



MAHAI INGURUA

...eta orain zer?



**MARIANO
FERRER**
(kazetaria)



**JONE
GOIRIZELAIA**
(Arnaldo Otegiaren
abokatua)



**XABIER
ARZALLUZ**
(EBBko
lehendakari ohia)



**MARTXELO
OTAMENDI**
(BERRIAKO
zuzendaria)



**HASIER
ETXEBERRIA**
(moderatzaila)

**ELGOIBARKO
HERRIKO ANTZOKIAN
OTSAILAREN 24an,
OSTEGUNA, 19:00etan**

Internetez zuzenean: www.arnaldotegi.com



**ARNALDO ASKATU
POLITIKA ASKATU**

ARNALDO ASKATU
HERRI EKIMENA